

# begira



45. zk  
2019ko martxo



---

Enplegagarritasun  
Plana - ULMA Taldea

---

Genero berdintasuna,  
kooperatiben erronka

---





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <  
ULMA Pipingek **berromologazioa** lortu  
du **Aramcorekin**, munduko petrolio  
konpainiarik handiena

ALBISTEAK ETA  
GAURKOTASUNA >  
ULMA Embedded  
Solutionsek **tren**  
sektorearen aldeko  
**apustua** egin du



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <  
EDiA EM berria **finalista 2019ko**  
**Bikaintasunerako FLTA sarietako**  
hiru kategoriatan



> ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK  
**Idoia Besada**. Euskal dantza tradizionala,  
magia eta diziplina



> AURREZ AURRE  
**Arantxa Anduaga**. ULMA Architectural  
Solutionseko Giza Baliabideetako zuzendaria

## 2019ko martxoa

- 04 **albisteak eta gaurkotasuna**  
ULMA Taldeak 26 milioi euroko mailegu bat eskuratu du EIBtik  
  
ULMA Architectural Solutions nazioarteko hainbat azokatan izan da urteko lehen hiruhilekoan  
  
ULMAk Segoviako Eresma arku formako zubia eraikitzeko proiektuan parte hartu du  
  
ULMA Conveyor Components. Mae Moh proiektua Thailandian  
  
Marcelo Bueno, ULMA Handling Systemen arduradun berria Brasilen  
  
Ontziratze soluzio jasangarriak fruta eta barazkietarako, Fruit Logistica 2019an
- 16 **ULMA Taldeko beste talentuak**  
Idoia Besada. Euskal dantza tradizionala, magia eta diziplina
- 18 **aurrez aurre**  
Arantxa Anduaga. ULMA Architectural Solutionseko Giza Baliabideetako zuzendaria
- 20 **erreportajea**  
Genero berdintasuna, kooperatiben erronka
- 22 **erreportajea**  
Esan BAI prestakuntzari Enplegarritasun Plana - ULMA Taldea
- 24 **ULMA Fundazioa**
- 26 **agenda eta iradokizunak**



**ARGITARATZAILEA:**  
Grupo ULMA S. Coop.  
Bº Garagaltza 51  
20560 OÑATI  
Tel.: 943 25 03 00  
**ZUZENDARITZA:**  
Carlos Sarabia  
csarabia@ulma.com  
**EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Joseba Alberdi, Elena Goirizelaia,  
Maria Sendin, Irene Moreno,  
Eduarne Unzueta, Nerea Burgoa,  
Raúl Illaro eta Carlos Sarabia.  
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Igone Basterra  
ibasterra@ulma.com  
**INPRIMATEGIA:**  
Gertu S. L.



Aldizkari hau paper birziklatuan inprimatu da.  
**#keinujasangarria**

## ULMA CONSTRUCTION

### Brooklyneko (EEBB) eraikin altuena

Brooklyneko etxebizitza dorrerik altuena izateko diseinatua, **altueran 220m ditu, 68 solairu eta igerileku mugagaberik altuena mendebaldeko hemisferioan**. Luxuzko 458 etxebizitzaz gain, eraikinak 4.000 m<sup>2</sup> ditu zerbitzuetara bideratuak. Brooklyn Point izango da City Pointen salgai jarriko den lehen etxebizitza jabetza eta aisialdirako eremurik handiena.

ULMAk bezeroarekin lan egin du proiektu honetan soluzio integrala eskaintzeko **enkofratu eta apeoen ingeniari-tza soluzioekin eta HWS babes perimetral sistemekin**, bezeroak egindako hautua langileen segurtasuna bermatzeko obrako lanak egin bitartean. HWSko 36 panelak eraikinaren perimetroa estaltzeko eta 4 solairu eta erdi babesteko diseinatu dira.

Proiektuaren hasieratik bukaerara ULMAko teknikariak obran bertan egon dira produktuaren inguruko gai

orotan aholku emateko. Zerbitzuaren fidagarritasuna, ULMA produktuen errentagarritasuna eta ingeniari-ekin obran bertan ematen duten laguntza iraunkorra dira Brooklyneko (New York) eraikin handi honen sorkuntzan ULMAk parte hartzeko arrazoiak.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### Marcelo Bueno, ULMA Handling Systemsen arduradun berria Brasilen

Logistikaren sektorean eta, bereziki, ikerketaren, teknologiaren eta ekintzailetzaren eremuetan ibilbide profesional luzea egin duen zuzendaria (20 urte baino gehiago).

Buenoren kontratazioa Brasilgo filialaren berrantolaketa onorioa da; izan ere, hemendik aurrera Brasilgo filialak eskumen zabalagoak edukiko ditu, Latinoamerika osoko negozioak hartuko baititu bere baitan. «Berrantolaketa estruktural honekin eta baliabideak zabaldua, hobeto kokatuta egongo gara euren intralogistikarako soluzio automatizatuak eta berritzaileak bilatzen dituzten enpresetarako, zerbitzua eskuragarriago edukiko baitugu eta bezeroei laguntza hobea emango baitiegu», adierazi zuen Buenok, misio profesional hau bere gain hartzean esandako lehen hitzetan.

Marcelo Buenok zientzietako doktorego ondoko bat dauka Unicampetik, eta esperientzia sendoa dauka exekutibo gisa, eremu internazionalen garatuta: B2B negozioetan eta industri sektorean esperientzia dauka, ehun milioi dolar baino gehiagoko balioa duten negozioak sortzen dituzten enpresa batzuetako salmenta arloan egin zuen lan, eta hamar urte baino gehiago dira enpresen gestioaz eta emaitzen kontuaren erantzukizunaz arduratzen dela. Azken hamahiru urteetan negozio estrategiak garatu ditu Hego Amerikan, joerak eta jardunbide hobek bereganatuta, merkatu ugariaren kulturaren sakonduta, profesional sendo bihurtuta eta lurralde guztietan planteatu daitezkeen erronkei aurre egiteko egoki prestatuta.

## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### Arrakasta handiko parte hartzea ULMA Orga Jasotzaileen Banatzaileen urteko konbentzioan

Edizio honetan ULMAk 55 hornitzaile baino gehiago elkartu zituen, parte hartze arrakastatsua guztiz; gainera, Mitsubishi Forklift Truckseko ingeniari batek, Bart Cieremans, parte hartu zuen. Berak aurkeztu zuen 48Vko orga kontrapisatu elektrikoaren modelo berria.

Konbentzioa Alcalá de Henaresen izan zen, ULMA Orga Jasotzaileak herri horretan baitu delegazio bat, eta gai hauen inguruan ardatz zuen: salmenta estrategiak, orgen merkatuko zenbakien azterketa, eta leasing eta renting produktu finantzario berri eta berritzaileen aurkezpena. Halaber, eta banaketa sarearekiko begirunez, merkaturatu aurretik aurkeztu zitzaizkien floten kudeatzaile propio berria, UDALOG.

Merkatuko datu, produktuen berritasunak eta finantzazio formulaz gain, jardunaldiak sare guztia biltzeko eta

benetan atsegina izan zen topaketa batez gozatzeko balio izan zuen, bertaratutako askok adierazi bezala.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA Architectural Solutions nazioarteko hainbat azokatan izan da urteko lehen hiruhilekoan

**ULMAren kanalizazio eta drainatze soluzioak World of Concrete (EEUU) eta Carrefour de L'eau (Frantzia) azoketan aurkeztu dira.**

ULMA Architectural Solutionseko kanalizazio eta drainatze dibisioa hainbat azokatan izan da urte hasiera honetan.

**World of Concrete 2019** (Hormigoizko mundua) azoka urtarrilaren 22tik 25era izan zen "Las Vegas Convention Center" erakustazokako instalazioetan. Estatu Batuetan hormigoizko segmentura zuzendutako jardunaldirik garrantzitsuenak da, eta sektorearen adierazle argia, joera nagusiak elkartzen direna. Urtero egiten da, eta aurtengoa ULMAk erakusketari gisa parte hartzen duen hirugarren urtea izan da.

Urtarrilaren 30ean eta 31n Rennesen (Frantzia) **Carrefour de L'eau** azokaren 20. edizioa egin zen. Frantzia uraren inguruan egiten den jardunaldi garrantzitsuenetakoa da, urtero egiten da, eta hainbat profesionalen parte hartzen dute: tokiko agintariak,

operadore publikoak, komunitate zientifikoak...

Bi azoketan 3 kanalizazio sistema desberdin aurkeztu dira: **Kompactrain kanal konpaktuak, karga handientzako F sistema eta MultiV+ sistema.**

Azoka horiei esker, ULMA Architectural Solutionsek epe luzeko harreman komertzialak sustatu ditu bezeroekin nazioarte mailan.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyor Components Handizkakoak Manipulatzeko Teknologiarri buruzko Adituen 23. Konferentzia izan da

Irailaren 19an eta 20an, Garnichen (Munich), Handizkakoak Manipulatzeko Teknologiarri buruzko Adituen 23. Kongresua egin zen (23rd Expert Meeting for Bulk Handling Technology).

Magdeburgoko Unibertsitateak (ILM) eta Municheko Unibertsitate teknikoak Garnicheko herrian elkarrekin antolatzen duten ekitaldia da. **Materialaren handizkako manipulazioan aditu direnek urtero egiten duten kongresu bat** da, non arlo honetako Europako enpresa garrantzitsuenetako teknikari, zientzialari eta operadoreak biltzen diren eta **bai enpresek bai unibertsitateek garatu berri diren berritasun, azterlan, proiektu eta aurrerapen teknologikoak erakusten dituzten.**

250 parte hartzaile baino gehiago bertaratu ziren, guztiak ere gaiari lotutako sektoreetakoak; hala nola **meatzariak, ingeniariak, eta garraiagailuen zein conveyorretarako**

**hornidura industrialen (ordezko piezak) fabrikatzaileak.**

ULMA Conveyor Componentsek ezin zuen ekitaldi honetan kale egin. Eta abagunea aprobetxatu zuen uhal garraiatzaileetako osagaien monitorizazioaren eta handizkakoak garraiatzeko ahalmen handia daukaten conveyorren mantentze lan adimentsuaren eremuan garatutako teknologia aurkezteko.

4.0 Industriak eta IoT (Internet of

Things – Gauzen Internet) izan zen aurkezpenetan denbora tarte handia hartu zuen gaia, eta horrek adierazten du etorkizuna teknologia honek baldintzatuko duela.

Bertaratutako enpresa interesak eta erantzuna oso positiboak izan ziren. Bertaratutako enpresen artean harreman ugari egin ziren, eta ULMA Conveyor Componentsen irudia hobetzea lortu zen exijentzia handikoa den Alemaniako merkatuan.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricola, 2019 Fruit Logistica



ULMA Agricola erakusketari joan zen barazki eta fruituen sektoreko erreferentzia den Fruit Logistica azokara, Berlinen egin baitzen otsailaren 6an eta 8an.

Fruit Logistica berretsi egin du liderra dela barazki eta fruituen merkatuko azoka monografikoen artean. Edizio honetan, 90etik gora herrialdeetatik joandako 3.200 erakusketari baino gehiagok parte hartu dute, eta eskaintza zabala erakutsi diete hitzordu horretara hurbildutako 135etik gora herrialdeetako 78.000 bisitariei.

Azokak berrikuntzaren eta nazioartekotze sendo baten aldeko apustua egin du, eta hori dela-eta erakusketariak eta bertaratutako enpresak baiezta dute harremanak egiteko, ideiak trukatzeko eta negozioak egiteko plataforma ezin hobea dela.

Azokara joandakoen artean ULMA Agricolaren standak bisitatu zutenen eskaintza eskaintza berrikuntzak eta soluzioak ezagutzeko aukera izan zuten. ULMA Agricolako langileak oso sentipen positiboarekin itzuli dira azokatik, bai egindako harreman berriengatik, bai etxeko bezero ezagunek egindako ekarpen eta iradokizunengatik eta emandako zorionengatik.

## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### ULMA Embedded Solutionsek tren sektorearen aldeko apustua egin du

ULMA Embedded Solutionsek lehen aldiz parte hartu du RailLive azokan. Martxoaren hasieran izan da, BECen. Azoka horrek tren sektorearen erreferente bilakatu nahi du Europa mailan, eta bertan izan dira sektoreko marka handi eta munduan erreferentzia diren guztiak.

ULMA Embedded Solutionsek apustu handia egin du, eta stand handi bat jarri du, sektore horretako bezeroen proiektu eta soluzioetan oinarritutako zerbitzu eta produktu katalogo zabala aurkezteko.

Tren sektoreko jardura hau ULMA Embedded Solutionsek sektore jakin batzuetan bere jardura ardatzeko duen estrategiaren esparruan kokatzen da, bere bezeroei balio bereizgarri altua emateko espezializazio sektoriala bilatuz, zeinetan trena eta tren sektorea UES markekin erlazionatzen duten erreferentzietako bat izatea den helburua.

Sektorearentzako soluzio espezifikoek gain, produktu elektronikoen garapenean, sistemen ingeniariak zerbitzuetan eta beste sektore mota batzuetan test, balioztapen eta kontrol sistemarako zerbitzu aurreratuak eskaintzeko gaitasunean UESek duen esperientzia erakusteko aprobetxatu du.



## ULMA TALDEA

### ULMA Taldeak 26 milioi euroko mailegu bat eskuratu du EIBtik

TALDE KOOPERATIBOAREN HAZKUNTZA ETA BERRIKUNTZA ESTRATEGIA FINANTZATZEKO BALIOKO DU MAILEGUAK

Europako Erkidegoko erakundeak emandako laguntzarekin, **euskal talde kooperatiboak bere I+G+B proiektuak inplementatu ahal izango ditu, erakuntzaren industriarako soluzio berrien garapenean zentratuta**, segurtasuna eta produktibitatea handitzeko xedearekin.

EIBren finantzaketarekin ULMA inbertsio berriak egin ahal izango ditu Espainian eta Polonian kokatutako elkarguneetan, erakuntzarako duen alokairuko ekipamendu eta makinaren flota handitzeko eta modernizatzeko. Inbertsio horiek ULMAren lidergo europarra ziurtatzen lagunduko dute, erakuntzarako sistema osagarrien alorrean.

Akordioa Oñatin izenpetu da, EIBko lehendakariorde Emma Navarroren eta ULMA Taldeko zuzendari nagusi Iñaki Gabilondoren artean, eta Juncker Plana izenez ezagutzen den Europarako Inbertsio Planen barruan sartzen da. Ekimen horrek EIBri aukera ematen dio enpresen lehiakortasuna suspertu eta enplegu sorrera bultzatzen duten proiektuak finantzatzeko. Zehazki, inbertsio plan hau martxan jartzeak

**300 lanpostu garbi baino gehiago sortzea** ahalbidetuko dio Taldeari.

Iñaki Gabilondok oso positiboki baloratu du EIBekin egindako akordioa, eta nabarmendu du *“oso garrantzitsua” dela “ULMA Taldearen etorkizuneko proiektuak EIB bezalako erakunde baten babesa eta laguntza edukitzea, horrek indartu egiten baitu Taldeak historikoki eta modu iraunkorrean berrikuntzaren eta hazkunde jasangarriaren alde egindako apustua”.*

EIBko lehendakariorde Emma Navarrok, berriz, adierazi du honelako ekimenak garrantzitsuak direla *“ziurtatzeko EBK ekonomiarako funtsezkoa den erakuntzaren moduko sektore batean teknologia berrien garapena gidatzen duela. ULMArekiko akordio honek ahalbidetuko du bere sektorean liderra den enpresa espainiar batek oso lehiakorra izaten jarraitzea, aldi berean Espainian eta Polonian lanpostu berriak sortzen lagunduta”.*

Finantzaketa iturriak dibertsifikatzeko duen strategiaren barruan formalizatu da, ULMA Inbersiones sozietatearen bitartez.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### U-MIND Universe, bezeroen arrakastarekin konpromiso gorena

U-MIND Universe ULMAren logistika suit berria da, eta funtzionaltasuna da bere elementu bereizgarria. **Software logistikoko suit bat da, abangoardiako teknologia eta hodeiko funtzionaltasunak integratzen dituena, eragiketen informazioa instalazioen bizi zikloaren gaineko informazioarekin batera prozesatu ahal izateko.**

U-MIND Universek tresna ugari txertatzen ditu, haietako bakoitza helburu bati begira ardazteko. Unibertso hau honako hauek osatzen dute: U-MIND WMS, instalazio automatikoei adimen guztia ematen dien SGA-a; U-MIND Sentinel, desiragarriak ez diren egoerak kontrolatzeko gure instalazioak zaintzen dituen eragilea; U-MIND Instant Watcher, urrutiko ikusmena duen tresna, gure teknikari taldea bezeroaren taldearekin elkarrekintzan aritzea eta jardutea errazteko; eta U-MIND EAM, gure instalazioen mantentze lanaren kudeaketa ezin hobea egiteko tresna beharrezkoa.


ULMA Handling Systemseko instalazio automatikoen alderdi pentsalaria eboluzionatzeko helburuz sortu da U-MIND, eragiketa logistikoak ahalik eta eraginkorrenak izatea ahalbidetzeko, momentuko eta etorkizuneko erabaki

hartzeak erraztuz, jarduketa azkarra eta eraginkorra izan dadin.

Zentzu honetan, ULMA Handling Systemseko Serviceseko zuzendari Eñaut Sarriegik nabarmendu du "U-MIND Universeren definizioa eta ezarpena prozesu luze eta bizia izan dela, baina merezi izan duela. Gure instalazioen balio erantsiak gero eta zerikusi handiagoa dauka ukiezina den horrekin, eta softwarea horren adierazlea da. Tresna hauek ahalbidetuko digute eragiketak ondo funtzionatzea, eta gainera, gure zerbitzua eraginkorragoa izaten lagunduko digute. U-MIND softwarea baino

gehiago da: ULMA Handling Systemsek egindako proposamena da, gure bezeroek horien instalazioen balioa ahalik eta gehien maximiza dezaten".

U-MIND, hain zuzen, etorkizuneko apustua da, eta ULMAk bere bezeroen arrakastarekin duen konpromiso gorena; izan ere, bere izenak ondo definitzen duen moduan, sistemen burmuina, burua, adimena baita, eta horrek sistema intralogistikoen eraginkortasuna gorenera igotzea ahalbidetzen du, ULMAk babesten duen konfiantzatik, gertutasunetik eta esperientziatik.



>> Eñaut Sarriegi, ULMA Handling Systemseko Serviceseko zuzendaria

## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### Inoxtruckek apustu sendoa egin du Atlantako IPPE 2019an


Inoxtruckek, ULMA Orga Jasotzaileen jarduerak, lehen aldiz parte hartu du IPPE 2019an, Ekoizpen eta Prozesatzeari buruzko Nazioarteko Azokan (International Production & Processing Expo), haragiaren sektoreko munduko azoka espezializaturik handiena, Atlantako (EEBB) Georgia World Congress Centerren izan dena otsailaren 12tik 14ra.

Sektoreko itzal handiko ekitaldi honetan Inoxtruckek parte hartu izanaren arrazoi nagusia da, hain zuzen, nekazaritza elikagaien sektorerako **%100 higienizagarriak eta herdoilgaitzak diren manutentzio ekipamendu berritzaileen gama zabala ezagutzera emateaz gainera, bere nazioarteko salmenta sarean banatzaile ofizial berriak txertatzea,**

**Amerikako Iparraldeko eremu osoari estaldura emateko, Kanada barne.**

Inoxtruckek "putzuaz" bestaldean dagoeneko badu bezero garrantzitsuen

konfiantza; esaterako JBS, Cargill, Dietz&Watson, Greencore edo Abbott Laboratories.



## ULMA PIPING

### ULMA Pipingek berromologazioa lortu du Aramcorekin, munduko petrolio konpainiarik handiena

**BERROMOLOGAZIOAK ULMA PIPINGI AHALBIDETUKO DIO ARAMCO SAUDI ARABIAN GAUR EGUN GAUZATZEN ARI DEN MEGAPROIEKTUEN LIZITAZIOA EGITEA MOMENTU HONETATIK BERTATIK**

ULMA Piping Aramcoren hornitzaile homologatuen zerrendaren barruan dago berri ere, munduko petrolio konpainiarik handiena, hori lortzeko bi urtez lanean aritu ostean.


Aramco petrolio konpainiaren eta ULMA Pipingaren arteko harremana duela 40 urte baino gehiago hasi zen, 1976 inguruan. Baina duela bi urte, 2017ko urtarrilean, ULMA Pipingeko

homologazioa bertan behera utzi zuen Aramcok, hornikuntzako kalitate arazoak tarteko.

**Bi urtez prestatze lanetan aritu ostean, ahalegin eta dedikazio handiz prozesuak hobetu eta produktuen kalitatea hobetzeko, ULMA Pipingek lortu du petrolio konpainia arabiarraren berromologazioa.** Ahaleginaz gain, nabarmentzekoa da makinerian eta helburua lortzeko prestakuntzan egindako

inbertsio handia ere.

Berromologazioak ULMA Pipingi ahalbidetuko dio Aramco Saudi Arabian gaur egun gauzatzen ari den megaproiektuen lizitazioa egitea momentu honetatik bertatik. Aramco petrolio eta gasaren mundu merkatuan oso aktiboa den petrolio konpainia da, eta ULMA Pipingek bezerorik handienetakoa izan da hasieratik.



أرامكو السعودية  
saudi aramco

Aramco munduko petrolio konpainiarik handiena da, egunean 10 milioi petrolio gordin upel baino gehiago ekoizten ditu. Bere egoitza nagusia Dhahran-en dago, Saudi Arabiako ekialdean, 1935ean lehen prospekzioa egin zuten lekuan, hain zuzen.

Mundu mailako petrolio ekoizlerik handienak dira (milioika upel/eguneko), eta haien petrolio gordinaren erreserbak 261.000 milioi upetik gora dira, Estatu Batuetako ExxonMobil petrolio konpainiak duena baino hamar aldiz gehiago. Munduko zortzi upetik bat ekoizten du.


Aramcok 51.000 saudiarabiarrari eta 10.254 atzerriarri ematen die enplegua, 77 herrialdetan banatuta dauden filialetan: Txina, Egipto, Japonia, India, Holanda,

Hego Korea, Singapur, Arabiar Emirerri Batuak, Britainia Handia eta Estatu Batuak. Bere merkatu nagusia Asia da. Bere petrolio gordinaren esportazioen %62,3,

produktu finduen %46,4 eta gas natural edo likidotuaren esportazioen %25,5 hartzen du.

#### Biggest oil producers in the world

Projected oil production in 2016, in millions of barrels per day



SOURCE: RYSTAD ENERGY

## ULMA TALDEA

### Enpresagintzako ikasleak ULMA Taldearen instalazioetan bisitari

Joan den otsailean, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako fakultateko ikasle batzuek ULMA Taldearen instalazioak bisitatu zituzten. Ikasleok **myGADE graduko ibilbide akademikokoak dira, zeinaren bitartez ikasleak bai ikasgeletan bai enpresetan prestatzen diren.** ULMA Taldeak ere, unibertsitatearen mundutik hurbil dagoen enpresa izanik, programan parte hartzen du.

Bisitari zatorren publiko gaztea aintzat hartuz, modu atsegin eta parte hartzailean ULMA ezagutzeko moduko formatua egin zen. Lehiaketa txiki baten bidez, 4 taldetan banatutako ikasleek ULMArekin zerikusia zuten galderak erantzun zituzten. Galdera bakoitzaren ondoren erantzun zuzena azaltzen zen, eta gehien hurbildu zen taldeari puntu

bateko balioa ematen zitzaion. Azkenean, puntu gehien eskuratu zuen taldeak saria jaso zuen.

Bisitari amaiera emateko, eztabaida txiki bat sortu zen, ikasleen ahotik jakiteko

zein arrazoik eramango lituzkeen enpresa batera lan egitera eta ez beste batera. Finean, irabazi-irabazi baino ez zuten egin alde biek, esperientzia aberasgarria izan zen-eta bai ULMArentzat bai ikasleentzat.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA Fatxada Aireztatuak Bilboko Miribilla frontoiaren eraberritzean

ULMAK SOLUZIORIK HOBERENA ESKAINI DIO FATXADAREN NARRIADURARI

Kirolaren Etxea eta Bizkaia Frontoia, Miribilla Frontoia gisa ere ezaguna, esku pilota profesionaleko frontoia da, eta Bilboko Miribilla auzoan dago. 2011. urtean inauguratu zen, eta 3.000 eserlekurekin Espainiako frontoirik handiena da.

Fatxada eraberritzeko beharra sortu zen **pieza batzuk lurrera erori zirelako.** Azterketa batzuk egin ondoren, fatxadako pieza guztiak eta lotzeko sistema aldatu behar zirela erabaki zen. Ainguraketa eta arbelezko lauza guztiak kendu ondoren, sare berri bat jarri zen, eta hor **ULMA hormigoi polimerozko plaka berriak jarri ziren.**

| **ULMA hormigoi polimerozko fatxada aireztatuak plaken soluzioa**

Fatxada aireztatuaren soluzioa eraikinaren paramentuaren eta estalduraren artean aire ganbera bat uzten duen sistema da, energia eraginkortasuna hobetuz.

Hormigoi polimerozko plakak erabili dira, **kalitate handiko materiala, poliester aleekin eta erretxinarekin osatutakoa, ezaugarri tekniko oso iraunkorrak dituena.**



## ULMA MEDICAL IMAGING

### Taiwaneko MiiS enpresak ULMA Medical Imaging bisitatu du

MiiSek, irudi erretinografikoa hartzeko ekipamendu eramangarrietan liderra den enpresak, ULMA Medical Imagingeko instalazioak bisitatu ditu otsailean.

2018ko urrian, ULMAK eta MiiSek elkarlan hitzarmen bat sinatu zuten erretina irudiak hartzeko erretinografo bat elkarrekin garatzeko, eta ULMAK merkatura eraman nahi duen soluzio integralaren parte izateko.

Bisitak iraun duen egunetan zehar oso aurreratua dagoen ULMA erretinografoaren amaierako prototipoaren aurrerabideak gainbegiratzeko aukera izan dugu, eta urte honen azken hiruhilekotik aurrera merkaturatu ahal izatea espero dugu. Bisitak ere balio izan du oftalmologian espezializatutako eta oraindik existitzen ez den produktu sanitario berritzaile baten garapenkidetzari buruzko zehaztapenetan

aurrerapausoak eman ahal izateko. Halaber, ULMAK nazioartean MiiSen egungo eta etorkizuneko katalogoa banatzeko kontratuei buruzko gaiak modu egokian

landu ditugu. Irailean gu joango gara bisitan, bi erakundeen arteko aliantza sendotzen jarraitu ahal izateko.



## ULMA CONSTRUCTION

### ULMAK Segoviako Eresma arku formako zubia eraikitzeko proiektuan parte hartu du

Eresmako biaduktua hirigunean gehien eskatu den azpiegituretako bat da; izan ere, 2002an egindako trafikoaren bolumenaren aurreikuspena hirukoiztu egin da, 6.000 ibilgailutik 18.000 izatera pasatuz.

Egitura honen berezitasuna, hain zuzen, arku forma eta goiko aldean lauza duen geometriari datza. Arkuari dagokionez, ULMAK zapaten gainean itxitura arkupedun bat proposatu du, lursail malkartsu eta maldatsua ekiditeko. Arkuaren geometria 20 metroko luzera duen H-33 karga handiko zertxak erabiliz lortu da.

Apeo hori T-500 dorreak erabilia lortu da, eta 40 metroko altuera lortu dute, bost euskarriekin, arku osoa eginez.

Zinbra dorreek, zertxek eta enkofratuak **segurtasun elementu guztiak izan dituzte, lan osagarriak berme osoz egiteko aukera eman dutenak.**

**Plangintzako, ingeniartzako eta**



**obrako laguntzaz** arduratzen diren talde ezberdinen arteko koordinazio onak, eta, horrekin batera, Eresma ibaiaren gaineko zubiak Segovian duen **gaitasun tekniko eta logistikoa** hainbat faktore

erabakigarri izan dira Eresma ibaiaren gaineko zubia eraikitzeko proiektuan. Zalantzarik gabe, trafikoaren eta bide segurtasunaren arintasuna hobetuko dira.

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA Architectural Solutionsen Brasilgo delegazioak bisitatu gaitu

Joan den urtarrilean, ULMA Architectural Solutionsen Brasilgo filialeko lankideen bisita izan genuen.

Sao Paulo hirian delegazio komertzial bat daukagu duela 9 urtetik, Brasilgo merkatuan presente egoteko. Gaur egun, 6 lankide daude Brasilen lanean kanalizazio eta arkitektura dibisioetan.

Aurten, lehen aldiz, Brasilgo lankide guztien bisita izan dugu Oñatiko instalazioetan. Aste bat igaro dute gure artean, eta gogor lan egiteaz gain, gure lurraldeko gastronomiaz eta paisaiaz gozatzeko denbora ere izan dute.



## ULMA TALDEA

### ULMA Taldeko enplegu orriak 16.000 bisita izan ditu 8 hilabeteen

Dagoeneko 8 hilabete dira ULMA Taldearen enplegu orria abian jarri zela ([www.ulma.com/eu/egin-bat-umarekin](http://www.ulma.com/eu/egin-bat-umarekin)), hedapenerako tresna garrantzitsua "ULMA a better place" Marka Enplegatzailerako kanpainaren baitan. Web orriak, diseinu garbi eta ikus-entzunezko eduki askorekin, edozein pertsonari ematen dio gu gertuagotik ezagutzeko aukera: nortzuk garen, zer egiten dugun eta zer eskaintzen dugun jakiteko.


Hilabete hauetan zehar web orriak 16.000tik gora bisita jaso ditu, web orri

zaharrak iaz denbora tarte berean jasotako 6.800en aldean. Lehen hilabeteen, 2018ko uztailean, 1.700 bisita jaso genituen, eta azaroan, 2.665 bisita. **Web orria bisitatzen duten pertsonen %46 bertan publikatutako lan deialdietara sartu dira, eta horietatik %60k izena eman dute bertan zegoen eskaintzaren batean.**

Orotara, Negozio guztietako 40 lan eskaintzatik gora argitaratu dira. Argitalpen gehien egin dituzten negozioak ULMA Handling Systems (%45), eta bere atzetik ULMA Construction (%19) eta ULMA Orga

Jasotzaileak (%13) izan dira.

Halaber, gogorazi behar da gure enplegu orria ezagutzera eman eta hautagaiak ULMAra erakartzeko helburuz, gure sare sozialen laguntza dugula; zehazki, LinkedIn eta Twitter sareena. Aipatu kanal korporatiboetan argitalpenak eginez lortu dugu enplegu webgunera 1.000 bisita baino gehiago erakartzea hilabete hauetan zehar.



## ULMA PACKAGING

### Ontziratze soluzio jasangarriak fruta eta barazkietarako Fruit Logistica 2019an

ULMA PACKAGINGEK FRUITU ETA BARAZKIEN ONTZIRATZE JASANGARRIRAKO AZKEN SOLUZIOAK ERAKUTSI ZITUEN FRUIT LOGISTICA 2019AN, OTSAILAREN 6TIK 8RA BITARTE BERLINEN ANTOLATUTAKO AZOKAN

ULMA Packaging ontziek ingurumenean duten inpaktua murriztearekin erabateko konpromisoa dauka, eskatzen den ontziratzearen bolumena murrizten duten soluzioak eskainiz eta birziklatzeko eta konposta egiteko gaitasunak hobetuz, produktuaren babesa eta bizitza erabilgarriari mesede egiten dion ontziratzeari muzin egin gabe.

Horretarako, ULMA Packagingek %100 konpostagarriak diren ontziratze soluzioak

aurkeztu zituen, eta, gainera, ULMA Packaging jasangarritasun terminoetan egiten ari den guztia ezagutzera emateko berariaz diseinatutako standean toki bat eduki zuen, diskurtsoa honako hiru funtsezko zutabe hauetan oinarrituz:

- Materialak murriztea ontziratze prozesuan
- Produktuaren babesa eta bizitza erabilgarria
- Birziklapena eta konposta

Beste behin, ULMA Packaging bere bezeroekiko gertuko eta soluzio jasangarriak eskaintzen liderra den enpresa gisa kokatu da; eta, hala, plastikozko ontzien erabilerarekin gero eta kontzientzia handiagoa duen gizartearekin lerrotzen da.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolak 40 urte egin ditu merkatuan

ULMA Agricolaren jardura 1979an hasi zen. Hasieran, ULMA Construcciones barruko negozio lerro bat izan zen, baina poliki-poliki eta denborarekin, negozio txiki hura bere merkatu kuota handituz joan zen, zeinak 2007tik negozio independente gisa diharduen.

Sortu zenean, ULMA Agricola tunel motako negutegi egituren edo oso egitura sinpleen fabrikatzaile eta ekoizlea zen, baina gaur egun zerbitzu integrala eskaintzen du goi teknologiko negutegi instalazioetarako, munduko edozein bazterretan.

ULMA Agricolan argi dute proiektu oro desberdina dela. Laborantza bakoitzak teknologia, kalkulu eta

diseinu espezifikoak eskatzen du. Hori dela eta, ingeniari sail zabala du, 5 kontinenteetan presentzia duen teknikari eta komertzialen sare zabala, eta kualifikazio altua duten muntaketa ekipamenduak. Talde guztia inplikatu da proiektuan, bezeroari laguntza emanez prozesu osoan zehar, diseinutik instalazioan bertan giltza eskura gisako entrega egiten den eguneraino, eta posible den soluziorik onena aplikatuz bezeroak erabilgarri dituen baliabideak ahal bezain beste optimizatuz.

40 urteko historian zehar negozioan lan egin duen giza talde osoaren ahaleginari esker, ULMA Agricola, gaur egun, etorkizunerako garapen handiko

proiektu handia dugu, merkatuaren beharrei aurrea hartuko dieten soluzioak garatzeko aski ongi prestatuta dagoen talde gazte eta ilusioz beteriko batek osatua.





### ULMA ORGA JASOTZAILEAK

## EDiA EM berria finalista 2019ko Bikaintasunerako FLTA sarietako hiru kategoriatan

ULMA Orga Jasotzaileak zorioneko dago; izan ere, Mitsubishi EDiA EMko kontrapisatu elektrikoaren gama berria finalista baita 2019ko Bikaintasunaren FLTA -Fork Lift Truck Association- sarietan, **saririk ematen dituen lau kategorietatik hirutan**. Saria 2019ko martxoaren 30ean emango da.

Urrian, FLTA Sarien Izendapenen Batzordeak bilera egin zuen, mundu osoko mota eta tamainetako sarrera kopuru errekorra aztertzeko; eta, urtarrilean, azkenik, 16 produktu edo zerbitzuren zerrenda geratzeko. Eta finalista horien artean daude, hain zuzen, **ergonomia, segurtasun eta berrikuntza** sarietarako hautagaitzan gaur gaurkoz ULMA Orga Jasotzaileek eskaintzen dituzten produktu gama osoaren artean "adimentsuenak eta arinenak" diren organak.



### ULMA CONSTRUCTION

## ULMA Constructionek bere irudi digitala berritu du, bezeroarengana duen orientazioa indartuta

"Gure erantzuna, zure proiektuak dauden tokian": mezu horrekin estreinatu ditu ULMAk bere webgune korporatibo internazionalen zein bere webgune lokalen irudi berria eta eduki berriak.

ULMAk duen presentzia digitala optimizatzea eta horren bitartez bezeroekin harremanetan egoteko bideak eskaintzea eta erraztea da proiektu digital hau garatzeko motibazio nagusia. ULMAren webgune bakoitzari emandako irudi berrituaren ezaugarria da, batez ere, ikus-entzunezkoen lengoia erabiltzen duela, komunikazioan balio eta eragin handia duten irudiei leku nabarmena eskainita, baina irudi berriak, batez ere, erabiltzaileek gure webguneetan nabigatzeko duten lehenetsiak aztertu eta lehenetsun horietara egokitu eta gero atera denari erantzuten dio, erabiltzaileek

gehien kontsumitutako eta positiboki baloratutako eduki eta guneak indartu baitira, **bezeroen esperientzia hobetzera** bideratutako gune berriak sartzeaz aparte.

ULMAren webgune bakoitzaren izateko arrazoia eta helburua da **enkofratu, aldami eta segurtasun sistematan eskaintzen dituen soluzioak** erakustea, bereizita eta bezero bakoitzarengan pentsatuta, **herreriale bakoitzeko errealitateari eta proiektu bakoitzak planteatutako eskakizunei egoki erantzuteko**.

Horrela, hurbiltasuna, proiektu osoan bezeroaren ondoan egotea, analisia, ulermena eta herreriale bakoitzeko kulturara eta eraikuntza metodoetara egokitzea dira ULMAk duen **filosofia eta lan egiteko moduaren bereizgarriak, eta eremu digitalean ere ageri dira bereizgarri horiek**.



### ULMA HANDLING SYSTEMS

## ULMA Handling Systemsek Logimaten aurkeztu du Shuttle M sistema eta picking automatikoko robota

LOGIMATEko hitzordu logistiko handiak ULMAri bere Shuttle-M sistema aurkezteko aukera ematen dio, bereziki diseinatuta dagoena proiektu intralogistikoetan **malgutasuna, zehaztasuna eta errendimendu altua emateko**.

Sistemak diseinu malgua dauka, eta edozein enpresarako eskaerak prestatzeko premietara ezin hobeto egokitzeko aukera ematen du, modu errazean egokituz dauden espazio baldintzetara eta momentu oro bermatuz sistema modu errazean zabaltzeko aukera.

Picking automatikoko robota, halaber, ULMAko standean egon zen, eta banaketa zentroetan eskaerak prestatzeko elkarlan eremuetarako diseinatutako banakako picking sistema malgu honen funtzionamendua lehen eskutik baloratu ahal izan zuten bisitariak.



### ULMA CONVEYOR COMPONENTS

## Mae Moh proiektua Thailandian

Italian-Thai Development PLC (ITD) Thailandiako enpresak ULMAri esleitu dio Heavy duty (HDC) arrabolen eskaera bat, Mae Moh meatzearen 9. hedadurarako, Asiako hego-ekialdeko handiena. Meatzea Lampang eskualdean dago, Bangkoketik 600 km iparraldera.

ITD Thailandiako eraikuntza enpresa integral garrantzitsua da, Thailandiako eta Asiako proiektu mota guztietan esperientzia duena. Lehenagoko proiektuetan ULMA Conveyor Componentsek eduki dituen emaitza onak eta Alemanian esterila maneiatzeko antzeko instalazioetan izandako esperientziak ahalbidetu dute proiektu garrantzitsu honen esleipena. Arrabolen entrega 2019an zehar egingo da, eta 2020ko maiatzaren 1erako instalazioa abian jartzea aurreikusten da.

Arrabolak diseinatu dira, hain zuzen, **karga (16.000 Tona/orduko), bandako abiadura (5.5 m/s) eta eremu horretako ingurumen baldintzen euri, bero eta hezetasun baldintza garrantzitsuak jasateko**.







## Euskal dantza tradizionala, magia eta diziplina

Idoia Besada, ULMA Medical Imaging



*“Dantzaren bidez nire sentimenduak adierazteko aukera daukat; izan ditzakedan arazoak alde batera uzteko momentu bat da.”*

### ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotzak, talentuarekin eta ahaleginarekin horma guztiak botatzen direla erakutsiz.

**Idoia Besadak, ULMA Medical Imagingeko langileak, euskal dantza tradizionala praktikatzan du 6 urte zituenetik.**

Idoia Besada, duela 25 urte Pasaian jaioa, gurekin ari da 2018ko udaz geroztik, eta beti sentitu du pasioa euskal dantza tradizionalengatik. Gogoan du 4 urte zituela bere ahizpak Villabonan hartzen zituen solteko dantza klase guztiak jarraitzen zituela txoko batean eserita. Egun batez irakasleak altxatzeko esan zion, eta gaur arte ez da berriz ere eseri. Gaur egun soilik dantza tradizionala egiten badu ere, bere burua dantza ororen zaletzat dauka, eta urte hauetan zehar baleta, dantza garaikidea eta baita klakea ere ikasi du.

Idoiaren ibilbidea oso bizia izan da, 6 urte zituenean Errenteriako Dantza eta Musika Eskolan euskal dantza tradizionalako eskolak hartzen hasi zenetik 18 urte bete arte. Aldi berean, eta bere lagunekin dantzatzeko asmoz, Pasaiaiko Alkartasuna Dantza Taldeko kide izan zen. 14 urte zituela Jesus Mari Garatek gonbita egin zion Beasaingo Nahia Dantza konpainian parte hartzeko, eta 18 urte bete zituenean Errenteriako Ereintza Dantza Taldera egin zuen salto. 22 urterekin, Xabier Artolarekin hasi

zen dantzan, gaur egun ere bere dantza bikotea den horrekin, eta entseguetako baten ondoren proposatu zioten Tolosako Udaberri Dantza Taldean geratzea, “eta oharkabea, udaberriar bilakatu naiz”, kontatu digu.

Artolarekin batera, dantza solteko txapelketetan parte hartu izan du Euskal Herri guztian barrena. Dantzari honek hainbat lorpen erdietsi ditu; besteak beste, 3 aldiz izan da “Euskal Herriko Dantza Txapelketako” txapelduna Xabierrekin batera, eta bitan bere lehengo bikotearekin, Jon Iburgurenekin. Gazteagoa zenean ere lehen postua lortu zuen “Euskal Herriko Soinu Zahar Txapelketan”.

Udaberri Dantza Taldeko kide gisa, Idoiak ikuskizun askotan parte hartzen du urte osoan zehar, nahiz eta uda den denboraldirik aktiboena, herrietako jaiak tarteko. “Dantza taldeetan urte osoan zehar entseatzeko dugu, eta taldera iristen diren ia ikuskizun eskaera guztiak onartzen ditugu”, adierazi du Besadak. Dantzaren eskutik hainbat herrialdeetara bidaiatzeko aukera izan du; hala nola Italiara, Suitzara, Txekia, eta baita Japoniara ere; azken bidai horretaz oso oroitzapen onak ditu.

Idoiarentzat dantza da “egunerokoa ahaztu eta mundu ezberdin batean murgiltzea. Dantzaren bidez nire sentimenduak adierazteko aukera daukat,

eta izan ditzakedan arazoak alde batera uzteko momentu bat da. Txapelketetan gozatzeko aukera nerbioak direla eta pixka bat murrizten bada ere, agertoki gainean dena ahazten duzu”.

Pasaitarrak astean hiru entsegu orokorrekin ekiten dio urteari, eta horiei bat gehiago gehitzen die apirilean, Tolosako San Juan egunerako Bordon Dantza entseatzeari ekiten baitiote. Otsailean, txapelketak prestatzeari ekiten diote, eta dinamika guztiz aldatzen da. Bere dantza bikotearekin astean bitan entseatzeko du; horretaz gain, taldeko entseguak ditu, eta maiatzean, txapelketak martxan jartzearekin batera, astean hirutan ere ikusten dute elkar, baita lautan ere, abuztutik aurrera, alegia, hitzordurik garrantzitsuena hurbildu ahala: “Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketa”.

Horrek eskatzen duen dedikazioa handia izan arren, “dantza maite dugu, eta horregatik ateratzen dugu denbora ez dagoen lekutik ere”. Bere dantza taldea eta bere lantokia Pasaiaiko etxetik urrun daude, eta hori dela-eta denboraldian zehar entseguak laburragoak izan dira, baina ostiraletako entseguak ahal bezain beste aprobetxatzen saiatzen da. Onartzen du: “Ez da erraza. Baina zaila ere ez. Esaera zaharrak dioten bezala; gustuko tokian, aldaparik ez”.

# Talentuaren kudeaketa, erronka berri bat ULMArentzat

Gaur egun, Giza Baliabideetako gure departamentu asko erabat murgilduta daude denok kezkatzen eta arduratzen gaituen zeregin batean, hau da: talentua erakarri eta atxikitzea. Hori dela eta, gure negozioetako giza baliabideetako arduradunak elkarriketatzeari ekin diogu, beren iritzia azaldu, eta konta diezaguten nola ari diren bizitzen, gure Talde mailan oro har, eta beren negozioan bereziki, alde batetik, talentua erakarri eta gurera atxiki beharra, eta, bestetik, gure pertsonen artean lehendik dagoen talentua garatu beharra.



“Garrantzitsua da ikasleek enpresei lehen eskutik entzutea, eta ikasgeletan daudenetik lan mundua sentitzen hastea”.

ARANTXA ANDUAGA.  
ULMA Architectural Solutionseko  
Giza Baliabideetako zuzendaria

« Aztertzen gabiltzan gaiari dagokionez, une honetan zelakoa da ULMA Architectural Solutionsek daukan premia? Gaur egun lehentasuna da Negozioarentzat?

Gure kooperatiban, merkatuko testuingurua kontrakoa izan zaigun urte batzuen ondoren, hazkunde garai garrantzitsu batean gaude. Alde batetik, eraikuntzaren sektoreko merkatuaren berreskurapena dela eta, baina baita Negozioaren beraren barruko eraldaketa garrantzitsua tarteko ere, bai nazioarteko filialei dagokionez, bai maila industrialean, epe ertainean ekoizpen prozesuaren robotizazioa barne.

Zentzu horretan, guretzat lehentasunezkoa da ULMA Architectural Solutionsen lehendik dagoen talentua bultzatzea gaitasun berriekin, premia berriei egokituz, baita kanpoko talentua erakartzea ere, gure Kooperatibaren balioen ildoan, gure bidelagun izateko.

« Talentua da jarduera bat bikain ikasi edo lantzeko daukagun ahalmena eta tasuna; baina zure ustez, badakigu enpresako pertsona bakoitzaren tasunak identifikatzen eta indartzen? Nondik uste duzu abiatu behar duela identifikazio horrek, kooperatibatik edo gure ingurune akademikitik?

Lan eta ikasketa mundua zenbat eta hurbilago egon, orduan eta mesede handiagoa bientzat, eta ondorioz, gizartearentzat. Enpresok ikastetxei adierazi behar diegu zer premia dugun, eta ikastetxeek jakinarazi behar digute zer motibazio duten ikasgeletan dituzten ikasleek. Garrantzitsua da, halaber, ikasleek enpresei lehen eskutik entzutea, eta ikasgeletan daudenetik lan mundua sentitzen hastea. Zentzu

horretan, pauso garrantzitsuak ematen ari dira; esaterako, prestakuntza duala, momentu honetan hedapenean dagoena. Erakundeetan dauden pertsonen dagokienez, erakundeko pertsona bakoitzaren tasunen identifikazioa bi bidetatik dator. Batetik, erakundeak ikusi behar du nola hobetzen den pertsona bakoitzaren trebakuntza eta gauzapena, eta bestetik, bazkidea bera da bere garapen profesionalerako hobekuntzak planteatzen dituen.

« Zein balorazio egiten duzu ULMA Taldeak arlo honetan egiten duen ekarpenaz?

Eraldaketa momentua da talentuaren erakarpen eta atxikipenari dagokionez. Zentzu honetan, ULMA Taldea proaktiboki jokatzeko ari da egungo gizarteko aktore protagonistekin batera, bai hezkuntza mundua, bai instituzioak, baita gizarte erakundeak ere, izaera askotariko proiektuei helduz erakartzeari eta trebatzeari dagokionez, bai eta etorkizuneko erronkei erantzuna emateari ere, eta plantillan kudeaketaren bidez saiatzen gara identifikatzen zer profesional mota beharko dugun epe ertain-luzera gure Kooperatibetan.

« Antzematen duzu sintoniarik gainerako negozioekin?

ULMA Taldean sektore anitzetan ari diren Kooperatibak ditugu, tamaina askotarikoak, batzuk enpresa ibilbide luzekoak, eta beste batzuk sortu berriak. Hala ere, talentuaren kudeaketari dagokionez, sintonia erabatekoa da. Helburu berberekin eta taldean egiten dugun lan, eta horrela anbizio handiagoko proiektuei aurre egin diezaikegu; bestela, konplexuagoa litzateke.

« Itxura denez, negozio estrategia on bat edukitzearekin ez dugu nahikoa; horrekin batera, marka enplegatzaile gisa definituko gaituen marketin eta komunikazio estrategia bat ere eduki beharra dago. ULMA Architectural Solutionsen, nola nahiko zenukete zuen xedeko publikoak zuek ikustea arlo honetan?

2017. urtean zehar eta 2018. urte hasieran, gure Kooperatiban nahi ditugun balioak landu ditugu, eta erakundeko pertsona guztiek egindako ekarpenekin, eguneratu egin ditugu. Gustatuko litzaike gure publikoak eraikuntzaren sektoreari soluzio eraikitzailea ematen dion erakundea garelako pentsatzea, eta, gainera, gure nortasuntzat hartu nahi ditugun balioen arabera mugitzen garen giza taldea garelako ulertzea.

« Bukatzeko, zure ustez, gurean lehendik daukagun talentua sortu eta garatzearen alde egin beharko genuke, ala kanpoko talentua erakartzearen alde? Edo kontua oreka topatzea da?

Uste dut bien arteko oreka behar dugula. Dagoeneko gure erakundeetan diharduten profesionalak garatzea lortu behar dugu, prestakuntzaren, barne sustapenen eta bestelako bitartez. Helburu bikoitza izan behar dugu, gainera. Batetik, bere lanbide garapenari esker erakunde barnean pertsona hori hainbat funtzio gauzatzeko gai izan dadin; eta, bestetik, lehendik badugun talentuari eusteko. Bestalde, funtsezkoa da beste enpresa batzuetako langileak txertatzea, bestelako errealitate batzuk ikusi dituztenak, eta horrenbestez, bestelako ikuspegi batzuk emango dizkigutenak; bai eta mundu akademikitik ateratzen diren pertsonak txertatzea ere, enpresa proiektuei heltzeko modu berriak izango baitituzte.

# Genero berdintasuna, kooperatiben erronka

Cristina Madina eta Maixabel Madinagoitia oñatiarrak 40 urte inguru aritu ziren ULMAn lanean. 70eko hamarkadan, emakumeak lana uztera derrigortzen zituzten kooperatibetan. ULMAn bi emakume hauek izan ziren ezkondu ostean ere lanean jarraitzearen alde borrokatu ziren lehenak.



MAIXABEL MADINAGOITIA

“Ezkondu ostean ere lanean jarraitzeko eskaera egitea izan da bizitzan hartu dugun erabakirik onena”



CRISTINA MADINA

## « Nola hasi zineten ULMAn lanean? »

60ko eta 70eko hamarkadetan lan asko zegoen, eta emakume asko hasi ginen ULMAn lanean. Otaduiko bulegoan hasi ginen, bazkide izateko ilusioz. Garai hartan, emakumeak, ezkontzen zirenean, etxean geratzen ziren. Guk ez genuen etxeko lanetara eta familia zaintzetara mugatu nahi izan. Askok gustatzen zitzaigun ULMako lana, eta kooperatibako kide ginen. Etxeko lanak eta gure seme-alaben zaintza antolatzeko beste modu batzuen bila aritu ginen, eta kooperatibako organoetara eskaera bat aurkeztu genien, ezkondu ostean ere lanean jarraitu ahal izateko.

## « Nola izan zen? Zer egin zenuten? »

1974. urtean ezkontzekoak ginen biok. Guk argi geneukan lanera itzuli nahi genuela, eta ordurako, Kontseilu Sozialean horri buruz hitz eginda geunden. Kontseilu Errektoreari gutuna idatzi genion,

emakume ezkonduok enpresako bazkide izaten jarraitzeko aukera eskatuz. Inoiz hartu dugun erabakirik onena izan da.

## « Aurreko ohiturekin alderatuta, aldaketa handia ekarri zuen horrek. Zer esan zizueten etxean? Eta lanean? »

Etxean ez genuen inolako arazorik izan erabaki horren aldeko apustua egiteko. ULMA barruan denetarik izan zen, baina oro har, begi onez ikusi zuten. Noski, garai hartan ez zen pentsatu ere egiten emakumea lanera itzultze horretan, eta edozein aldaketarekin gertatzen den bezala, bazkide batzuen iritzia entzun behar izan genituen; esaterako: “Orain emakumeak ere lanean?” edo “Lanera itzultzekoa zarela? Benetan?” edo “Bi soldata etxean? Zer behar duzu ba? Ez al da nahikoa senarrak lan eginda?”.

Dena den, guk oso argi geneukan, eta aurrera jarraitu genuen. Gure atzetik, gehienek egin zuten gauza bera. Orain

pasadizo arrunta dirudi, baina garai hartan aldaketa handia ekarri zuen.

## « Orduetik erretiroa hartu duzuen arte, ikusi al duzue nolabaiteko bilakaerarik emakumeak lan mundura egindako jauzi horretan? »

Emakume langile izan garen aldetik, bizipen ugari izan ditugu. Gauzak asko aldatu dira, baina ikusten da asko dagoela egiteko oraindik. ULMAn ere, emakumeok bultzada handiagoa behar dugu, erantzukizuneko lanpostuetan aritzeko. Era berean, geroz eta gizon gehiago ikusten dira etxeko lanak egiten edo zaintza lanetan; alabaina, emakumeok daramagu, oraindik ere, pisurik handiena etxean. Eta horrek zaildu egiten du emakumeon lan profesionala zein ekoizpen lana modu egokian garatzea. Garrantzitsua da, gizona bezalaxe, gu ere kontuan hartzea lanpostu guztietarako, geure gaitasunen arabera.



## Genero berdintasuna kooperatibetan eta ULMAn


Kooperatibaren idiosinkrasian bertan berdintasuna eta diskriminaziorik eza daude jasota, baina gizartean zein lan merkatuan ikusten diren diskriminazio egoerak ispatuta ageri dira kooperatibetan ere.

Nahiz eta kooperatibak martxan jarri zirenetik bost hamarkada inguru igaro diren, gizonen eta emakumeen egoera oraindik ere ez da parekidea. Emakumeen parte hartzea gizonenak baino txikiagoa da, eta emakumeek toki handiagoa dute gizarte ospe eta soldata txikiagoko jardueretan. Gainera, oro har, kooperatiba gehienak gizonen kudeatu eta zuzenduta daude, eta emakumeek ordezkari organoetan duten tokia ez da proportzionala.

ULMAko enpresetan egin diren lehenengo hurbilketa ere errealitate hori islatu da: gure kooperatibetan emakumeek edo gizonen osatutako departamentuak daude, eta lan motak generoaren arabera daude banatuta. Zuzendaritza arloei erreparatu gero, bereziki gizonen betetzen dituzte lanpostu horiek, eta nahiz eta gainerako arlo eta departamentuetan emakumeek toki handiagoa izan, maila handieneko lanpostuetan ez da aurrerapauso hori sumatu.

**ULMA Taldeak eta bertako Negozio guztiek abian jarritako Berdintasun Planek gai horiei buruz sensibilizatzeko, prestatzeko eta hobekuntzak aplikatzeko aukera emango digute. ULMA Taldean dugun ahalmen guztiari balioa emateko bidean gara. Ildo honetan asko dugu egiteko, eta genero berdintasunaren bultzada dugu erronketako bat.**

## ULMA Constructioneko (2017-18) berdintasun diagnostikoari buruzko datu batzuk





# Enplegarritasun Plana

## ULMA Taldea

Etengabe gertatzen diren aldaketa teknologikoek, kudeaketakoek eta ingurunearen beraren aldaketek eraldatu egingo dituzte, datozen urteetan, languneak.

Aldaketa horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da ULMA Taldeko bazkideen enplegarritasuna hobetzea. Horregatik, ULMAk barne prozesu bat jarri du martxan, goi mailako lanbide heziketarik ez duten bazkideak presta daitezen.

Enplegarritasun Plan honen helburua da, hain zuzen, ULMA barnean bazkideen mugikortasuna bultzatzea eta Taldea osatzen dugun pertsona guztiok gure balioaniztasuna eta malgutasuna bultzatuko duen maila profesionala izatea, gure merkatuetatik eratorritako ekoizpen aldaketei, oraingoei zein etorkizunekoiei, erantzun ahal izateko.

Programa honekin, beraz, asmoa da 50 urtetik beherako bazkide mugagabe batek

beharrezko profil profesionala lortzea, 3 urteko epean, honako espezialitate hauetan: **Fabrikazio Mekanikoa, Makineria eta Industri Ekipamendua, Automatizazioa eta Robotika, Soldadura eta Mekatronika eta Materialak.**

Prozesuaren lehenengo fasean, profil profesionalak definitu dira, kooperatiben premien arabera. Ondoren, interesa duten pertsonen esperientzia eta prestakuntzaren berri jasoko da, eta horren arabera, prestakuntza ibilbideak definituko dira, modu pertsonalizatuan, kasu bakoitzean profila lortzeko beharrezkoak diren orduak finkatuz.

Plan hau egiteko, Bergarako Miguel Altuna Institutuaren lankidetzak daukagu,



**Honako hauei zuzendua dago: bazkide mugagabeak, 50 urtetik beherako bazkideak, goi-mailako zikloko lanbide heziketarik gabe**

eta Eusko Jaurlaritzaren esperientzia aitortzeko gailua baliatuko dugu. Era horretan, programan parte hartuko duten pertsonen profil homologatuak eskuratuko dituzte, ULMA Taldearen baitan baliagarriak. Eta Eusko Jaurlaritzaren gailu horretan egiaztatuta eta bilduta geratuko dira bai jasotako prestakuntza bai aitortutako esperientzia.

Ikastaro bakoitzaren matrikula, hain justu, pertsona bakoitzak berori egiteko beharrezkoak dituen orduen arabera izango da. Matrikularen zenbatekoa oso-oso berreskura daiteke, zenbat aldiz bertaratu den eta jasotako prestakuntzari ateratako aprobetxamenduen arabera. Esan nahi baita, emaitza positiboak lortu dituen eta ikastaroko saio guztietara joan den pertsona bati erabat doan aterako zaio prestakuntza.




**JOSEBA MARTINEZ**  
ULMA Taldeko Pertsonen Arloaren zuzendaria

*“Mendebaldeko ekonomietan, eta, beraz, baita Euskadin ere, lanpostuak izan duten bilakaeraren eraginez sortu da Enplegarritasun Plana.*

*Enpresek geroz eta kualifikazio profesional handiagoko pertsonak behar dituzte, geroz eta espezializatuagoak. Horren eraginez, ULMA Taldeak 2017ko irailean erabaki zuen bazkide mugagabe izendatzeko, ezinbestekoa dela gutxieneko profil batzuk edukitzea; zehazki, familia jakin batzuetako Goi Mailako Zikloren bat (Lanbide Heziketako 2. maila baten parekoa). Gainera, ekintza plan bat lantzen hasi ginen, une hartan profila betetzen ez zuten 50 urtetik beherako bazkide mugagabeen kualifikazioa areagotzeko.*

*Enplegarritasun Plan honen helburua da, hain justu, pertsona horien kualifikazioa areagotzea, eurek ere aukera profesional berriei etekina atera ahal izateko, eta beste enplegu krisiren bat etorri gero, birkokapenak egin ahal izateko. Azken batean, planaren azken helburua da aipatutako bazkideei kualifikazio pertsonal hobea ematea, lanpostu hobeetarako sarbidea izan dezaten, eta beste krisialdiren bat etorri gero, prestatuago egon daitezen”.*

### PROZESUAREN FASEAK



Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu; izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta jasangarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.



## Bilketa solidarioa; arroza eta pasta, Honduraserako

**Apirilean zehar arroza eta pasta bildu nahi ditugu, Hondurasko milaka haurri jaten ematen lagunduko duten oinarrizko elikagaiak baitira. Maiatzeko lehenengo astean itsasontzi bat aterako da Honduraserantz. Lagunduko al diguzu betetzen?**

ULMA Fundazioak eta zeu bezalako pertsona ugarik urteak daramatzagu ACOES Honduras GKEarekin lankidetzan eta bilketa solidarioetan parte hartzen, herrialde horretara hainbat material bidaltzeko. Iaz, gaztelaniaz idatzitako liburu eta ipuinak bildu genituen; eta, aurrekoan, sukaldeko tresnak. Aurten, berriz, **“Desnutrizioaren aurkako kanpainarekin”** lagundu nahi diegu. Horregatik, oinarrizko bi elikagai horiek biltzen ahaleginduko gara –arroza eta pasta–, ezinbestekoak baitira adingabe asko eta askoren eguneroko elikaduran. Apiril osoa duzu zure ekarpena egiteko. ULMAren kooperatiba guztietako ohiko tokietan bilketa kaxak izango dituzu eskura. Eta apirilaren 30ean, ordezkaritzetan jasotako material guztira Oñatira bidaliko da.

**Lortuko al dugu gutxienez tona bat biltzea? Zeure laguntzarekin, ziur gaude baietz.**



**APIRIL**  
OSOAN ZEHAR

HITZORDUA DUZU:  
**APIRILAK**  
5

Lehendik odol emalea bazara, edo lehenengoz odola eman nahi baduzu, apirilaren 5ean, ostirala, izango duzu aukera: 10:00etatik 13:30era, Oñatiko ULMA Taldearen gimnasioan.

## Odola emateko kanpaina

**Inoiz pentsatu al duzu odola ezin dela fabrikatu?** Ez dakizu noiz beharko duzun zeuk ere. **Odola ematea bizitza ematea da.** Horregatik, “Euskadiko Odol emaleen” kanpaina parte hartzeko deia egiten dizugu.

**Hori bai dela gainerakoen osasunarekin elkartasunez jokatzeari!**

Osakidetzako lantalde batek egingo dizu harrera, eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizu. Odola eman aurretik, galdetegi mediko bati erantzun beharko diozu, zure osasun egoera egokia dela eta 50 kg-tik gora pisatzen dituzula ziurtatzeko, ezinbesteko baldintzak baitira horiek odol emale izateko.

Ez etorri gosaldurik gabe, eta jakizu 30 minutu inguru igaroko dituzula. Odola eman ondoren, komenigarria da pixka batean atsedena hartzea, eta likido ugari edatea. Mokadutxo bat emango dizugu, indarberritzeko.

**Odol emale guztien artean birentzako bazkari bat zozkatuko da, Oñatiko Mauxka jatetxean.**



## Guraso Eskola

**“Anai-arreben arteko harremanak”.**

Horixe izan zen, hain zuzen, **otsailaren 28an** Rafael Cristobalek emandako hitzaldiko gai nagusia. Etxe askotan, anai-arrebak liskarrean hasten direnean izaten ditugun, eta jeloskortasunagatik, bekaizkeriagatik edo lehiagatik sortzen diren egoera zailak buruz hitz egin ahal izan genuen. Eta zinez interesgarria izan zen horrelakorik gerta ez dadin jarraitu beharreko pausoak zein diren entzutea. Guraso garen heinean, geure esku dago egoera horietara iristea saihestea.

Orain, landu beharreko beste gai hau prestatzen ari gara: **“Nerabezaroa”.**

**Apirilaren 25ean**, osteguna, 17:00etatik 19:00etara izango da hitzordua, ULMA Taldeak Oñatin dituen instalazioetan.



Gaia interesgarria iruditzen bazaizu, zator eta parte hartu! Izena emateko, deitu 943 250 300 telefono zenbakira edo idatzi mezua fundacion@ulma.com helbidera.

## Lehen sorospen ikastaroa

**Lehen ikastaroa martxoaren 26an izango da, arratsaldeko 17:00etan, Oñatiko ULMA Taldeko gimnasioan, ULMAko langileei eta haien familiei zuzendua.**

Ikastaroak izan duen harrera ona ikusita, talde berriak antolatuko ditugu interesa azaldu duten pertsonen prestakuntza emateko.

90 minutuko iraupena izango duen ikastaro honen helburua da arau batzuk ikastea eguneroko bizitzan gerta daitezkeen mediku larrialdi baten aurrean jardun ahal izateko. Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzea eta desfibriladore bat ongi erabiltzen ikasi.

**Izena ematera animatzen zaitugu 943 250 300 telefonora deituz.**

**Bizitzak salbatu ditzakezu!**



HURRENGO

# ekainaren 7an

## OMENALDIA ERRETIROA HARTU DUTENEI



Datozen hilabeteetan, ULMA Taldea zurekin harremanetan jarriko da, ekitaldira gonbidatzeko eta hari buruzko informazio guztia emateko.

ANIMA ZAITEZ!

GORDE EGUN HORI ZURE AGENDAN

ERRETIROAK: 2019ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra arte

Manuel  
Martin



Xabier  
Igartua



M<sup>a</sup> Resurrección  
Aranzeta



Jose Antonio  
Orueta



Jose Roberto  
Rojo



Carmelo  
Maiztegui

Mertxe  
Elkorobarrutia



Jose Mari  
Kortabarria



Juan Pedro  
Aguirre



Agustin  
Zarketa



Iñigo  
Etxebarria



Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu! **Zorionak**